

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

#### **45 urtetik gorako pertsonentzat enplegu egonkor eta kalitatekoa sustatzeko laguntzen 2019ko udal-programa arautzeko oinarriak eta deialdi publikoa**

2018ko abenduaren 28an, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen Gasteizko Udalaren 2019ko dirulaguntzen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2019ko otsailaren 13ko ALHAOn (19. zenbakia) argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2019ko martxoaren 29an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen 45 urtetik gorako enplegu egonkor eta kalitatekoa sustatzeko berariazko laguntzen 2019ko udal-programaren deialdi publikoa eta horiek arautzeko berariazko oinarriak. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, herritarrak jakinaren gainean egon daitezzen:

##### **1. oinarria. Dirulaguntza-lerroa**

45 urtetik gorako pertsonentzat enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntzak.

##### **2. oinarria. Deialdiaren xedea**

– Gasteizko udalerrian kontratazio mugagabea eta enplegu-egonkortasuna (lanaldi osoan nahiz partzialean) sustatzera zuzendutako laguntza ekonomikoak norgehiagoka bidez emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek.

– 45 urtetik gorako pertsonen kontratu mugagabeak egitera eta aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzera (lanaldi osoan edo gutxienez ehuneko 50eko lanaldi partzialean) zuzenduta daude laguntzak.

– Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

##### **3. oinarria. Enpresa edo pertsona onuradunen betekizunak, eta kontratatzeak diren pertsonen betekizunak**

Betekizun hauek betetzen dituzten enpresa edo entitateek jaso ahal izango dituzte programa honetako dirulaguntzak, edozein delarik ere haien forma juridikoa:

– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak zuzenean egitea Gasteizko udal-mugarteko lantoki batean.

– Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartu ahal izateko, pertsona edo entitate eskatzaileek betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta eduki beharko dituzte. Eskabidea aurkeztu denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak hori (dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean).

– Administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukeratik apartatua ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren

menpe ere, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu arrazoiengatiko diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.

Kontratatuko direnek betekizun hauek bete beharko dituzte, indarrean dagoen legediak agintzen dituen gain:

– Kontratu mugagabea hasten edo aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtzen denean 45 urte beteta edukitzea.

– Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez ere kontratu mugagabea hasi edo aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtu aurreko sei hilabeteetan.

#### **4. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak**

45 urtetik gorako pertsonen kontratu mugagabeak egitera eta aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzera (lanaldi osoan edo gutxienez ehuneko 50eko lanaldi partzialean) zuzenduta dauden laguntzak.

Enpresa edo autonomo bakoitzeko gehienez mugagabeko bi kontratu egiteko edo aldi baterako bi kontratu mugagabe bihurtzeko laguntzak emango dira, gizarteratze-enpresen kasuan izan ezik, hiru kontratutarako eman ahal izango baita halakoetan.

Oinarri hauek ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunetik eskabideak aurkezteko epea bukatu arte (2019ko irailaren 30a) egiten diren kontratu mugagabeengatik edo kontratu mugagabe bihurtzen diren aldi baterako kontratuengatik jaso ahal izango dira dirulaguntzak.

#### **5. oinarria. Honako hauetarako ez da dirulaguntzarik emango:**

– Eskabidean jasotzen den kontratua formalizatu aurreko hamabi hilabeteetan enpresa berekin lan-harreman mugagabe bat bukatu duten pertsonen aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzeko edo haiei kontratu mugagabea egiteko.

– Enpresaren titulartasunaren ondorengotzaren edo haren forma juridikoaren aldaketaren ondorioz aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzeko edo kontratu mugagabea egiteko.

– Enpresaburuen (edo enpresan zuzendaritza-karguetan dihardutenen nahiz administrazio-organoetako kide direnen) ezkontideen, ondorengoan edo bigarren mailara arteko (hori barne) odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duten senideen (edo horien parekoen, izatezko bikoteen kasuan) aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzeko edo kontratu mugagabea egiteko.

– Laguntza eskatzen duten sozietateetan partaidetzak dituzten edo kontratazioaren aurreko urtean izan dituzten pertsonen aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzeko edo kontratu mugagabea egiteko.

– Aldi baterako kontratuak aldizkako kontratu finko bihurtzeko edo aldizkako kontratu finko mugagabea egiteko.

Era berean, ezingo dira laguntza hauetaz baliatu:

– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluko debeku-egoeraren batean dauden enpresa edo entitateak.

– Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haiekin loturarik duten edo haien mendeko diren entitateak.

– Ezingo da dirulaguntzarik jaso Gasteizko Udalak nahiz beraren enpresa edo erakunde autonomoek adjudikatutako kontratuak gauzatzeko egiten diren kontratu mugagabeak edo kontratu mugagabe bihurtzen diren aldi baterako kontratuak.

– Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginak (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 2.1 artikuluan aipatzen dituen lan-harreman bereziak.

– Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudian ezarritako minimis araubidearen mendeko laguntzak direnez, ezin zaizkie sektore hauetako enpresei eman:

1. Arrantza eta nekazaritza, Kontseiluaren 104/2000 (EE) Erregelamenduaren arabera.

2. Tratutako I. eranskineko zerrendan agertzen diren nekazaritza-produktuen produkzio primarioa.

3. Beste herrialde batzuetarako edo estatu kideetarako esportazioekin lotutako jarduerak, baldin eta laguntza banaketa-sare bat osatu eta funtzionatzearekin lotuta badago, edo esportazio-jarduerarekin lotutako beste esplotazio-gastu batzuekin.

4. Ikatza, 1407/2002 (EE) Erregelamenduan definitutakoaren arabera.

#### 6. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Aurrekontu-zuzkidura, guztira, laurehun mila eurokoa izango da (400.000,00 euro), eta 2019rako luzatutako udal-aurrekontuko 2019/08 23 2411 4 8967 aurrekontu-aplikazioaren kontura ("Enplegu-egonkortasunerako laguntzak") finantzatuko da.

#### 7. oinarria. Eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek (aldez aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da).

Deialdia indarrean jartzen denean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2019ko irailaren 30ean bukatuko. Azken eguna larunbata edo jaieguna izanez gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Enpresa edo pertsona interesdunek eskabidea aurkezteak, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

#### 8. oinarria. Ebazteko epea

Gehienez hiru hilabeteko epean ebatziko da prozedura, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik.

#### 9. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauen arabera balioetsiko dira dirulaguntza deialdira aurkezten diren kontratu mugagabeak (egin berriak zein aldi baterako kontratutik kontratu mugagabe bihurtutakoak), puntuaziorik handienetik txikienera arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko:

Balioespen-irizpideak	Puntuak
Kontratutako pertsonen ezaugarriak:	
55 urtetik gorako pertsonak (mugagabeko kontratua egiteko edo aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtzeko datan).	60 puntu
50 urtetik 54 urte bitartekoak, biak barne (mugagabeko kontratua egiteko edo aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtzeko datan).	40 puntu
Luzaroan langabe daudenak. (12 hilabete langabezian azken 18 hilabeteetan).	50 puntu
DBEren titularrak edo onuradunak.	20 puntu
Emakumeak	20 puntu
Dibertsitate funtzionala duten pertsonak	10 puntu
Lanaldi mota:	
- Osoa	40 puntu
- Partziala (ehuneko 75ekoa edo goragokoa)	10 puntu
Gehieneko puntuazioa	200 puntu

**10. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea**

Kontratu mugagabearen (egin berria zein aldi baterako kontratutik lanaldi osoko kontratu mugagabe bihurtutakoa) urteko soldata gordinaren ehuneko 40ko laguntza; gehienez ere, 7.000,00 eurokoa izango da kontratazio bakoitzeko, eta 8.000,00 eurokoa 55 urtetik gorako pertsonen kontratu bakoitzeko (egin berria zein aldi baterako kontratutik kontratu mugagabe bihurtutakoa).

Lanaldi partzialeko kontratu mugagabeen kasuan (egin berriak zein aldi baterako kontratutik kontratu mugagabe bihurtutakoak), lanaldiarekiko proportzionala izango da dirulaguntza (gehieneko zenbatekoa).

Aurkeztutako eskaerak alderatu, eta haien hurrenkera ezarri ondoren, erabilgarri dagoen saldoa nahikoa ez bada onetsitako azken dirulaguntza ordaintzeko, saldoa guztiz amaitu arte geratzen den kreditua ordaindu ahal izango zaio horri.

Enpresak (lanaldiaren arabera) eskabidearekin batera aurkezten duen dokumentazioan ziurtatzen duen ordainsari gordina joko da kontratazioaren urteko soldata gordintzat; gerora, justifikatu egin beharko du hori enpresak.

**11. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea**

Ordainketa bakarrean ordainduko dira laguntzak, aurrerakin gisa, kontratu mugagabea egin dela edo aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtu dela eta laguntza emateko betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren; dena den, beste kontrol batzuk ezar litezke laguntza ematea ekarri duten baldintzak egiaztatzeko.

**12. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak**

Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. artikuluan xedatutakoa gorabehera, betebeharrak hauek izango dituzte onuradunek:

1. Laguntza zein jardueratarako eman den, hori gauzatu dela egiaztatzea, hau da, kontratu mugagabea egin dela edo aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtu dela, eta laguntza emateko ezarritako betekizun eta baldintzak betetzen direla.

2. Dirulaguntzaren xede diren kontratuekin jarduten duten langileei jakinarazi beharko diete hala dela.

3. Gasteizko Udalaren egiaztatze-jarduketan mende jartzea, baita Udalaren Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako jarduketan eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan jasotako mende ere.

4. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Gasteizko Udalari jakinaraztea.

5. Zerga-betebeharrak bete direla eta Gizarte Segurantzari zein Gasteizko Udalari ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzea.

6. Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorren Sailari beharrezkotzat jotzen duen informazio eta agiri osagarri oro ematea, deialdi honetan jasotzen dituzten dirulaguntzak ulertu eta ebaluatzeko.

7. Udal-dirulaguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, organo emaileari jakinaraztea.

8. Sortutako kontratu mugagabea gutxienez 18 hilabetez mantentzea, eta epe horretan zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekikoak betetzea. Kontratutako pertsonak enpresan baja hartzen badu epe horretan, ezaugarri berak dituen beste pertsona batek ordeztu beharko du hilabeteko epean (bajaren egunetik), betebeharrak eta baldintza beretan, eta Gasteizko Udalari jakinarazi beharko zaio, gehienez 15 eguneko epean, kontratu berria egiten den egunetik.

Ordezkapen bakarra onartuko da. Dirulaguntza ematea ebatzi aurretik gertatzen bada baja, aurkeztutako eskabidea bertan behera geratuko da.

9. Aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu baino sei hilabete lehenagotik eta ondorengo sei hilabeteak igaro arte, gutxienez, batez besteko plantillari eutsi zaiola egiaztatzea.

10. Jasotako funts publikoak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan adierazten diren kasuetan.

### **13. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna**

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateraezinak izango dira kontzeptu berarengatik eta helburu berarekin beste administrazio publiko edo entitate publiko nahiz pribatu batzuek ematen dituzten dirulaguntza edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

### **14. oinarria. Nahitaezko agiriak**

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira, nahitaez:

– Eskabidea, behar bezala beteta.

– Entitate eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

1. IFZ edo AIZ (autonomoen kasuan) edo enpresaren IFK.

2. Enpresa eratzeko eskritura, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalmenaren egiaztapena.

3. Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.

4. Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiri eguneratuak, horiek ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero (Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituen ofizioz egiaztatuko da).

– Kontratutako pertsona egiaztatzeko agiriak:

1. Laguntza jasoko duen lan-kontratua, bi aldeek sinatuta, Lanbideri kontratazio hori bide telematikoz jakinarazi izanaren egiaztagiriarekin batera.

2. Kontratatuaren errolda-agiria.

3. Laguntzaren xede den afiliatuaren lan-bizitzaren txostena.

4. Kontratatuaren NANA edo AIZ.

5. Kontratazioaren urteko soldata gordinaren ziurtagiria, enpresak emana.

Gasteizko Udalak justifikatutzat jo dezan ordaindutako dirulaguntza, onuradunak honako justifikazio-agiri hauek aurkeztu beharko ditu kontratu mugagabea sinatu edo aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtu eta 18 hilabetera:

1. Afiliatuaren lan-bizitzaren txostena.

2. Aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu ondorengo 18 hilabeteetako nominak eta hura ordaindu izanaren egiaztagiria.

3. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, batez besteko plantilla mantendu dela egiaztatzen duena. Horretarako, aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu aurreko sei hilabeteetako batez besteko plantilla eta, gutxienez, bihurtu ondorengo sei hilabeteetako alderatuko dira (gehenez hemezortzi hilabeteko aldia hartuko da kontuan).

4. Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiriak, horiek ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero (Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituen ofizioz egiaztatuko da).

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan.

Aplikatzekoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan jasotakoa.

Bide hauek baliatu ahal izango dira eskabidea eta nahitazeko dokumentazioa aurkezteko:

– Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea: Proiektu teknikoak eta gainerako agiriak euskarri digitaletan aurkeztu ahal izango dira: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak. Euskarri horietan, behar diren artxibo grafiko edo testu-artxiboek pdf formatuan egon beharko dute, eta ez da karpetarik egon beharko, baizik eta agiri guztiak maila berean bilduta. Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztuz gero, dokumentazioa formatu digitalean aurkeztu izanaren erantzukizunpeko aitortpena erantsi beharko zaio (Udalaren webgunetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz). Eskabideak behar bezala izenpetuta edo oniritzia emanda egon beharko du, kasuaren arabera. Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

– Dokumentazioa paperean aurkeztea: Paperean aurkezten den dokumentazioak DIN A4 edo DIN A3 tamaina eduki beharko du, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatzeko lana errazte aldera, orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe. Eskabideari paperezkoa ez den euskarri batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta beraz, hori digitalizatzerik ez badago, karpeta batean jasoko da, edukiaren indizearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, zeinean zehaztuko baita deialdian adierazitako dirulaguntza-ildoak zein udal-zerbitzuri dagokion.

– Egoitza elektronikoaren bidez: Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal izango da, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org> helbidean ezarritakoari jarraituz.

#### **15. oinarria. Akatsak zuzentzea**

Dirulaguntzaren eskabidea zuzen formalizatuta ez dagoenean edo daturen bat falta zaio-enean, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, pertsona edo entitate eskatzaileari akatsa konpontzeko eskatuko zaio, eta ohartarazi hala egiten ez bada eskabidea beste barik artxibatuko dela.

#### **16. oinarria. Prozedura**

##### **16.1. Prozedura.**

Dirulaguntzak emateko, elkarren arteko norgehiagoka-prozedura baliatuko da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan jasotakoari jarraituz.

Dirulaguntzak emateko, alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak (9. oinarrian ezarritako balioespen-irizpideak aintzat harturik), hartara lehentasun-hurrenkera ezartze aldera, eta puntuaziorik handienak lortzen dituzten eskabideei adjudikatuko zaizkie dirulaguntzak.

Deialdirako dagoen kreditua nahikoa bada oinarrietan finkatutako betekizunak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko, bazter utziko da horien arteko lehentasun-hurrenkeraren irizpidea, eta guztiak izango dira onuradun.

Oinarrietan eskatutako agiri guztiak eskabideari erantsi zaizkionean ezarriko da lehentasun-hurrenkera.

Berdinketa gertatuz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, balioesteko atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko, hurrenkera honen arabera:

1. 55 urtetik gorakoak.
2. 50 eta 54 urte bitartekoak.

3. Luzaroan langabe daudenak.

4. Emakumeak.

5. Lanaldi osoa.

Berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideak Gasteizko Udaleko sarrera-erregistroan aurkeztu zireneko datak eta orduak kontuan izanik.

16.2. Instrukzioa eta ebazpena.

Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Aztertze-, balioztatze-, hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da horretarako, saileko zuzendariak, Merkataritza Zerbitzuko eta Enpresa Zerbitzuko buruek eta Prestakuntza eta Enplegu Ataleko eta Ekonomia Sozialaren Ataleko buruek osatua.

Eskabideak jaso eta (betebeharrak betetzen diren egiaztatu ondoren) tramitatzea onartzen denean, balioespen-txosten teknikoa egingo da; hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposamena egingo du, eta Tokiko Gobernu Batzarrak ebaztuko ditu eskabideak; horretarako eskumena, dena den, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetu diezaioke.

ALHAOn eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez jakinaraziko da dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Aurrekontu-kreditua agortzen denean, eskatzaileei ez zaie eskatuko osorik ez dauden eskabideak zuzentzeko dokumentaziorik.

### **17. oinarria. Dirulaguntzak argitaratzea**

Oro har, ematen nahiz ukatzen diren dirulaguntzen zerrenda ALHAOn eta Udalaren webgunean argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak zehaztuta, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.

### **18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea**

Diruz lagundutako programa edo jardueran funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio Gasteizko Udalari, berriaz eta alde aurretik. Berriaz baimenduta baino ezin izango da gauzatu aldaketa. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu, aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

**19. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea**

Gasteizko Udalak, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahal izango ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote enpresa onuradunek.

**20. oinarria. Laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura**

Kasu hauetan ez da dirulaguntzarik ordainduko: pertsona edo entitate onuradunak Udalak emandako dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik. Ezin izango da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzeko prozedura baten ondorioz zordun bada ere.

Dirulaguntza eman zuen organoak izango du hura itzularazteko dosierra abiarazi eta, behar izanez gero, hala galdatzeko erabakia hartzeko eskumena.

Ofizios nahiz organo eskudunak edo interesdunak eskatuta abiarazi ahal izango da prozedura.

Horretarako probidentzia ematen delarik, dirua itzularazteko prozedura abiarazi dela jakinaraziko dio Udalak dirulaguntzaren onuradun den pertsonari edo enpresari, baita arrazoiak zein izan diren ere, eta entzunaldia eskainiko, egokitzat dituen alegazioak egin eta bidezkotzat jotzen dituen agiri edo justifikazioak aurkez ditzan, 15 eguneko epean.

Alegazioak jasota nahiz halakorik jaso gabe epea igarota, ebazpen arrazoitua emango du Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak, eta aurkez daitezkeen errekurtsoen berri adieraziko. Laguntza itzularazteko prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.

Urraketaren bat izan dela adierazten bada ebazpenean, galdutzat joko da laguntza jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, oker jasotako dirua Udal Diruzaintzari itzultzeko obligazioa izango da; bi hilabeteko epean egin beharko da hori, jakinarazpena jasotzen denetik.

Borondatezko aldiko epetzat joko da epe hori.

Adierazitako epean itzultzen ez bada, premiamendu-prozedurari ekingo zaio, aplikatzekoak diren lege-araudiei jarraituz.

Itzularazteko prozedura administrazio arau-hauste baten ondorioz abiarazia bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, aplikatzekoa den zehapen-prozedurari ekin diezaion.

**21. oinarria. Indarrean jartzea**

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean laguntzak emateko deialdi eta oinarri hauek.

**22. oinarria. Konfidentzialtasun-klausula**

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta Europako Parlamentuaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua betetze aldera, Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela (Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek). Horren gaineko eskubideak (norberaren datuak ikusi, zuzendu, ezereztu

eta haien aurka egin) baliatu ahal izango dira; horretarako, herritarrei laguntzeko bulegoetara jo beharko da.

Gasteizen, 2019ko apirilaren 3an

*Administrazio Zerbitzuko burua*  
*LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI*

**I. eranskina: eskabidea eta zinpeko aitortpena egiteko inprimakia**

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/18/18/61818.pdf>